

Bizilagun agurgarria:

Mendialdea Mankomunitatetik Lekunberriko hainbat gunetan hondakinak biltzeko zerbitzua indartzeko eta aldaketak egiteko beharra antzeman dugu.

Aldaketa horiek 2025eko abenduaren 17, 18 eta 19aren artean ezarriko dira, eta honako hauek dira:

1. Bilketa zerbitzua indartuko da udalerriko hainbat puntutan.
2. Birziklatzeko etxola birkokatuko da, eta Aralar kaleko 6. zenbakira eramango da (1. PLANOA).
3. Aralar kaleko 4. zenbakian dagoen bilketa-puntua Aralar kaleko 2. zenbakira lekualdatuko da, eta Iturburu kalean beste bilketa-puntu bat ezarriko da (1. PLANOA).
4. Aparkalekuan beilatokiaren ondoan dagoen bilketa-puntua kenduko da, eta 3 bilketa-puntu berri ezarriko dira eremu horretan; horrela, bilketa-puntuen sarea indartuko da eta haren gaitasuna hobetuko da. Era berean, Sasita kaleko puntua birkokatuko da (2. PLANOA).

Mendialdea Mankomunitatetik gogorarazi nahi dugu indarrean dagoen araudiak debekatu egiten duela hondakinak edukiontzietatik kanpo uztea.

Besterik gabe

1. PLANOA



2. PLANOA

